

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



C1 maila | Irakurmen-proba | Idazmen-proba

Ariketa	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Denbora
Irakurmen-proba	10	20	60 min
Idazmen-proba	15	30	90 min
Guztira			150 min

2021eko bigarren azterketaldia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HADE

C1 MAILA



Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena. Ondoren, idatzi **letra** dagokion laukian.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu bat** lortuko da. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

— I. TESTUA —

Ez dabil

Larre motzean hazitako belaunaldiek beti pentsatu izan dute ondokoak hobeto bizi izango zirela, eta hala zegokigula berez, esku-bide edo lege natural moduko bat zetzala horren atzean. Garapen sozialaren sinestunak ziren, eta haien fedea hauskaitza zen, sendoa, ebidentzien kontra sortua baitzen. Eskarmentu handia zuten kontrakoa pentsatzeko, baina, hala ere, eutsi egiten zioten etorkizun hobea ispiatzeari: halakoxea da fedea, bizi izandakoaren irakasbideekin zerikusi gutxi edo ia batere ez duena.

Gure amonak hamaika aldiz errepikatzen zuen. Ikasiz gero lan hobea lortuko genuen, geure ama eta amonek, eta haien aurretik beren amek eta amonek pairatu zuten sukaldeko patuari iskin egiteko modukoa, behinik behin. Lan hobea izanez gero, geuk irabazitako diruaren jabe izango ginen eta horrek erabateko askatasuna ekarriko zigun. Hortxe zetzan gure aurrekoen itxaropenerako zantzuetakoa bat: lanen eta diruaren artean kausa-efektu lotura zuzena zegoela uste zuten, salbuespenik gabea. Denbora dezente igaro zen askatasuna kolore anitzeko txori haute-manezina dela jabetu nintzenerako.

Amonak ez zuen sekula irakurri Virginia Wolf, ziur naiz, baina haren oihartzuna zekarten bere hitzek, haren testuingurura egokituta: aske izateko, emakumeak bere dirua eta bere espazioa, bere gela, izatea ezinbeste-

koa zen. Alegiazko gela hori goiko solairuan ei zegoen, eta gizarte-igogailuak hara eramango gintuen, zuzen-zuzenean.

Artean nik ez nekien etxe guztietan antzera mintzo zenik, bizilagunetako denok edo ia denok partekatzen genuela patu-modu berbera eta, ondorioz, mundu-ikuskerabera. Langile-etxea zen geurea, eta langile-etxeak ziren ezagutzen nituen beste guztiak. Gure beldur, itxaropen eta miseriak ez zirela bakarrik geureak, denonak baizik, askoz beranduago ikasi nuen; denbora dezente igaro zen pertsonala den oro politikoa ere badela jabetu nintzenerako.

Gaur egungo begiekin ikusita, inozoa irudi lezake gure amonaren xalotasunak, baina nik neuk behintzat, beti entzun izan ditut horrelakoak etxean, garai horretan ez bainuen Simone de Beauvoiren berririk. Pentsalari feminista frantsesak idatzita utzi zuen *Bigarren sexua* bere lan gogoangarrian: «Emakumeok ezin ditugu geure eskubideak bermatutzat eman. Erne egon zaitez, nahikoa izango baita krisi ekonomiko, politiko edo erlijioso bat berriro eskubide horiek ezbaian jartzeko».

Aldaketa ez da bat-batekoa izan, baina noizbait gertatu da: etorkizuna miresmenez itxaroteari utzi eta beldur izatera iritsi gara. Garapenaren promesa desberdintasunaren egiaztapena bilakatu da. Ez dago bide artezik, bide bihurri asko baizik. Oraindik gogoratu

behar dugu, ozen esan eta aldarrikatu emakumeon bideak malkartsuago eta lohizatua-
goak direla oraindik, desberdintasunen ar-
tean batzuk desberdinago garelako.

Agindu ziguten bezala, ikasi egin genuen,
gogotik, gainera, baina emakumeok langile
prekarioak gara; lanaldi etenak, soldata-arra-
kala eta genero-bereizkeria pairatzen ditugu.
Soldata gero eta urriagoei azpiak ateratzen
dizkiegu, geure amak, eta aurretik haren
amak eta amonek egin zuten bezala. Gela
hori, geuretzat nahi genuena, derrigorrez
partekatu behar dugu, eta errentan hartuta
garestiegi ordaintzen dugu.

Ezuste handia hartuko zuen gure amonak
gaur egungo gizarte-eraikuntzaren traza iku-
siko balu. Igogailua matxuratu egin da goiko
solairurako bidean gora zihoala. Ez dabil, eta
aurrera egingo badugu, eskaileran gora eta
oinez izango da, pausoz pauso; nekagarria eta
gogorra izango da tarteka-marteka.

Pilar Kaltzada
Berria, 2019-01-10
(Probarako moldatua)

— I. TESTUA —

Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

1. Zer dio egileak aurreko belaunaldiez?

- Zaila izango zela jakin arren, itxaropena zutela gizartearen garapenean.
- Esperientziak irakatsi ziela gogor ikasi eta lan egiten zutenak hobeto bizi zirela.
- Ez zutela inola ere zalantzan jartzen gizarteak aurrera egingo zuela.

2. Zein izan zen amonaren irakaspena?

- Beregaina izango bazen, emakumeak sukaldeko lana baztertu behar zuela.
- Virginia Wolfek esanak irakatsi zizkion, oihartzun handia izan zutelako amonaren gaztaroan.
- Etxetik kanpoko lanak emango ziola emakumeari bere lekua gizartean.

3. Zertaz konturatu zen artikulua egilea?

- Amonak esandako hitzak bat zetozela garaiko feminista askoren pentsamenduarekin.
- Amonak garaiko emakumeen beldur eta kezka berak zituela.
- Amonaren berba xaloek feministen pentsamoldea ezkutatu ziotela luzaroan.

4. Zer aurreikusitako zuen Simone de Beauvoir pentsalariak?

- Emakumeen arteko alde sozialek bere horretan jarraituko zutelako.
- Emakumeen eskubideak kanpo-faktoreen eraginpean egongo zirela beti.
- Emakumeen esku zegoela bigarren mailakoa izateari uzteko eskubideak bermatzea.

5. Nola ikusten du gaur egungo egoera artikulua egileak?

- Ez du bere amak eta amonak bizi izan zutenetik oso urrun ikusten.
- Kanpoan lan egitearen truke, etxeko egoera gogorra da emakumearentzat.
- Prekaritatearen ondorioz, aurrera egitea ezinezkoa ikusten du.



Egitekoa

Irakurri testua, eta galderari erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena. Ondoren, idatzi **letra** dagokion laukian.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu bat** lortuko da. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

—2. TESTUA—

Bizitza sintetikoa borborka

Gaur egun, erraza da edozein bizidunen genoma osoa deskodetzea. Galdera beste bat da jada: ikasi dugunarekin, lortu al dezakegu bizidun baten genoma hutsetik eraiki, bizia eman, eta guk nahi ditugun ezaugarriak izatea? Biologia sintetikoak helburu handiusteak ditu, batez ere esaten digunean jada desagertuta dauden espezieei bizia emateko ere balio lezakeela —mamutak edo neanderthalak, esaterako—, baina egia da azken urteotan aurrerapen ikusgarriak egin dituela.

Craig Venter-en taldeak eman zuen lehen ezustekoa, genoma sintetikoa duen lehenengo zelula eraiki zuenean, 2010ean. *Mycoplasma mycoides* bakterioaren genoma sintetizatu zuten. Orduan plazaratu zuen hurrengo erronka haren lehiakide Jef Boeke-k: goi-mailako bizidun baten genoma sintetikoa eraikitzea. Ez bakterio batena, baizik eta DNA kromosomatan antolatua duen bizidun eukarioto batena. Izena eta data jarri zizkion: *Saccharomyces cerevisiae* legamia eta 2017a.

Iritsi da 2017a, bai eta proiektuaren albisteak ere: legamiaren sei kromosoma artifizial sortu dituzte jada —genomaren herena gaintu dute—, eta bizirik iraun dute legamiok. Boeketik aitortu du dagoeneko amaitu dutela lehenengo genoma eukarioto sintetiko hipotetiko horren diseinu osoa; benetan sintetizatzea bakarrik falta zaie. Jatorrizkoaren aldean, moldaketa asko ditu diseinu berriak: funtziorik gabeko sekuentziak kendu dituzte, eta geneak nahieran piztu eta itzaltzeko sekuentzia erregulatzailerak sartu. Lorpen berri

horrek legamia artifizialak sortzetik oso gertu jarri ditu ikertzaileok, eta adierazi dute urtebukaerarako legamiaren 16 kromosomak sintetizatzeke erronkari eusten diotela.

Minimoa zer den

Hutsetik diseinatzen ari direnez, argitzen ari dira zein sekuentzia ken daitezkeen bizidunen bizitza kolokan jarri gabe eta zein dituzten bizitzeko behar-beharrezkoak. Horrela ari dira identifikatzen zein den bizirik irauteko behar-beharrezkoak diren geneen konfigurazio minimoa, hau da, zelula artifizialak modu autonomoan bikoizteko behar duena.

Aurrerapen horiei esker, edozein bizidun nahieran diseinatzeke eta sortzeke helburua hurbilago ikusten da, DNA diseinatzeaz gainera, informazio genetiko hori kromosoma moduan antolatzea baitzen erronka nagusia, material genetikoarekin batzen diren ehunka proteinak barne dituela: histonak, zentrome-roa, telomeroak...

Giza zelula sintetikoa

2016ko ekainean, *Science* aldizkariak jo zuen erronka galanta: 130 biologo sintetikok eta enpresarik landare eta animalien genomak artifizialki sintetizatzeke proposamena argitaratu zuten, tartean gizakion genoma bera. Haien esanetan, giza genoma deskodetu ondoren (HPG-read proiektua, hau da, Giza Genoma Irakurri), hori litzateke hurrengo urratsa (HPG-write, Giza Genoma Idatzi).

HPG-write proiektuaren buru ikusgarria

Boeke bera da, eta giza zelula germinal “ultra-segurua” sortzea du helburu. Zelula hori giza bioteknologiaren garapenerako plataforma unibertsal modura erabiliko litzateke. Oraindik eztabaidatzeko daude giza zelula germinal sintetiko horren nondik norakoak, baina jada aipatu dituzte izango lituzkeen ezaugarri batzuk: birusekiko, prioiekiko eta minbizia-errekiko erresistentzia, errefus immunologiko oso txikia —transplanteetan errefusa ekiditeko—, autohazkuntzarako eta autosuntsiketarako kontrol-mekanismoak, lerro germinalen transmisioa ekiditeko mekanismoak eta giza populazio gehienekiko bateragarritasuna.

HGP-write proiektuaren sustatzaileek diote 100 milioi dolar inguru beharko dituztela hamar urtean giza genoma artifiziala sintetizatu eta laborategiko plaka batean zelulak

hazteko. Industria farmazeutiko eta bioteknologikoari etekin handiak emango lizkieke, zalantzarik gabe, baina kontrako ahotsak ere altxatu dira. Haiek diotenez, biologia sintetikoaren proiektu hori edizio genetiko bano askoz harago doa, eta ez dira aurreikusi sor daitezkeen arazo etikoak. Proiektuaren sustatzaileek argudiatu dute zelula bat bano ez dela izango; ez gizaki bat, ez enbrio bat. Eztabaiden gainera, *Science* aldizkarian proiektua proposatu zutenetik, zientzialari asko atxiki zaizkio proiektuari. Erronka hor dago, beraz.

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute
Elhuyar, 2017-06-01
(Probarako moldatua)

—2. TESTUA—

Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

- 1. Posible izango al da mamut eta neanderthalei bizia ematea, egilearen ustez?**
 - a. Ez, bizidunen genoma deskodetzea bano zailagoa delako.
 - b. Bai, biologia sintetikoak helburu handiak ditu-eta.
 - c. Askotxo iruditzen zaio, bano ikusten du aurrerapenak badaudela.
- 2. Zer lorpenen berri eman dute 2017an?**
 - a. Lehenengo genoma eukariotoa sintetizatu dute eta erronka osatu.
 - b. Legamiaren genoma osorik diseinatzea lortu dute, eta zati bat sintetizatzea.
 - c. Legamiaren genomaren herena eraldatu dute, eta bizirik irautea lortu.
- 3. Zer informazio-mota lortuko da orain egiten ari diren ikerketen bidez?**
 - a. Jakingo dugu zer gene behar diren gutxienez bizirik irauteko.
 - b. Identifikatuko da zer genek gidatzen duten zelulak bikoizteko prozesua.
 - c. Edozein bizidunen DNA diseinatu ahal izateko beharrezko den informazioa.
- 4. *Science* aldizkariak jotako erronkari erantzunez egindako lanetan,**
 - a. Boekék aurreikusi ditu giza zelula germinal sintetiko ultraseguruen hainbat bereizgarri.
 - b. Boekék giza genoma deskodetu du, eta hori edizio genetikoaren ondorengo urratsa da.
 - c. lortu dute errefus immunologikoa eta autosuntsiketarako elementuak kontrolatzea.
- 5. Zer gertatu da HGP-write proiektuarekin?**
 - a. Eztabidak direla-eta, zientzialari gehienek aitzakiak jarri dizkiote proiektuari.
 - b. Arazo etikoak izan ditzakeen arren, zientzialari asko erronkari eusteko prest daude.
 - c. Eztabaida sortu dela, ez dutelako argitu giza enbrioirik sintetizatuko duten ala ez.



Egitekoa

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, zenbakiekin markatuta dauden hutsuneetarako **hitz edo esaldi-zati egokia** aukeratu behar duzu. Ondoren, idatzi letra dagokion laukian.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu erdia** lortuko da. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

—3. TESTUA—

Larrialdi klimatikoa

Gero eta erakunde gehiago ari dira larrialdi klimatikoaren gaia azpimarratzen, bai eta1..... aurre egiteko erabakiak hartzen ere. Ez gara, ordea, larritasunak eskatzen duen irmotasunarekin eta bizkortasunarekin erantzuten ari. Besteak beste, garapen-bidean dauden lurraldeek egoeraren erantzuletzat2..... aurreratutak diren nazioak jotzen dituztelako.

Kontuak kontu, orain arte adostutakoe-tan ez gara era esanguratsuan aurrera egiten ari. Horrela, ekonomian, garapenean eta gizateriaren bizi-baldintzetan aldaketa nabar-menak3....., hondamendi klimatiko baterantz goaz inolako galgarik jarri gabe. Hondamendi horren hainbat adibide baditugu. Alde batetik, biztanleriaren kopuru arras handia kostaldean bizi da. Aitzitik, berotegi4....., kostaldearen zati esanguratsua emeki-emeki urpean geratuko da eta, gero eta sarriago, jendea lekuz alda dadin bultzatuko du.

Beste alde batetik, lurra neurritz gaindi ustiatzen ari gara. Lur-eremu zabalak hondatzen ari gara, dela animalien ustiatze intentsi-boa baliatzeko, dela *errentagarritasun* handi-

ko landare espezieak landatzeko...5....., aniztasun biologikoa murrizten eta hezegu-neak lehortzen ari gara. Azkenik, gure jardunaren6....., berotegi-efektua areagotzen ari da, sikateak lur-eremu zabalei eragiten die eta jende andana lekuz aldatzera behartuta dago. Munduan,7..... migrazio-mugimendurik handiena jazotzen ari da hirietara, nora eta, ustez, aurreratuagoak diren lurraldeetara.

Egoeraren aurrean egin daitekeen gauzarik okerrenea da8..... eta orain arte egin dugun bidean sakontzea, bai eta hondamendia baliatzea ere, orain arte ustiatu gabe egon diren eremuak9..... lagatzeko. Bizimodu aldatu behar dugu albait arinen, azken finean, orainean, mementoan baino geroan pentsatzen hasi behar dugu,10..... bizitzeko toki aproposa izan dezaten. Horrek erakutsiko baitu bizirik irauteko, era orekaturan garatzeko ala geure buruaz beste egiteko gauza garen, hau da, benetan adimentsuak ote garen!

Erramun Osa
Deia, 2109-12-17
(Probarako moldatua)

—3. TESTUA—

Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

1

- a. gertakariaren ondorioz
- b. gertakari horri
- c. gertakari horrekiko
- d. gertakariaren aurka

4

- a. efektuari zor
- b. efektuaren ondoren
- c. efektua gorabehera
- d. efektuaren ondorioz

7

- a. egundoko
- b. sekulako
- c. inoizko
- d. betidaniko

10

- a. etorkizunetik datozenek
- b. etorkizunean datozenek
- c. etorkizunerako datozenak
- d. etorkizunean datozenak

2

- a. itxuran
- b. inolaz ere
- c. ustez
- d. apenas

5

- a. Alabaina
- b. Aitzitik
- c. Bideabar
- d. Behingoan

8

- a. datuekiko entzungor egitea
- b. garapena etetea
- c. ebidentzia ukatzea
- d. frogarik izan ez

3

- a. gertatu ezean
- b. gertatzearren
- c. gertatuko badira
- d. gertatuz gero

6

- a. eraginagatik
- b. aitzakian
- c. lepotik
- d. aldetik

9

- a. basamortuan
- b. basamortutik
- c. basamorturik
- d. basamortu



Egitekoa

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, markatuta dauden hitz horien **baliokidea aukeratu** behar duzu. Ondoren, idatzi **letra** dagokion laukian.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu erdia** lortuko da. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

— 4. TESTUA —

Talkak

Hiru mahaitan ari ginen kafea hartzen terra-za batean. Nire adin-moduko gizonezko bat, ama-alaba bi, eta **neroni (1)**, azkena iritsia. Bero-sapa zen, eta siesta-ordua. Eseri orduko entzun nuen gizonezkoak ondoko mahai-ko bi emakumeei nola **kargu hartu (2)** zien, aukeran ahotsa behar baino gehiago **ozenduz (3)**: «Egin ezazue euskaraz, badakizue-eta!». Amak, jiratu, eta arrazoia zeukala esan zion. Gizonezkoak nire **onespena (4)** bilatu zuen: «Egia da-eta! Dakigunok egin behar ez badugu...». Bekainak harrotuz erantzun nion, bere berotasunaren eta nire epeltasunaren artean **arrakalarik (5)** suma ez zezan.

«Guapa! Hi bai hi, emakumea!», egin zion oiuhu handik pixka batera gure parean hamar-hamabost metrora pasatu zen emakume bati. Bere bideari segitu zion hark, **diosal (6)**

moduko bat eginda. «Egia hori ere...», begiratu zidan nire onespeneren bila. Ez nion arrazoirik eman nahi izan. Ezagutzen zuen galde-tu nion, **ezaupideak (7)** eta bien artean egon zitekeen komunikazio-koderen batek jarrera **zurituko (8)** ziolakoan. Ezetz erantzun zidan, ez zuela ezagutzen.

Bizkor kondartu nuen kafea. Alde egiteko presa. Arnasa pixka bat hartzera irten eta **ito-mena (9)** sortzen zidan arrazoiaren eta ego-kieraren arteko **talkak (10)**, hizkuntzenak, berdintasunarenak... Irtenbidea hain ktramilatsua izanik, hobeto nengoen etxean.

Andoni Egaña
Berria, 2020-06-23
(Probarako moldatua)

Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

	A	B	C	D
1	niri	neu	nihaurk	nirekin
2	oiuhu egin	irri egin	errieta egin	zigortu
3	altxatuz	goretsiz	aipatuz	goraipatuz
4	berrikuspena	aitormena	gaitzespena	bedeinkapena
5	antzik	alderik	arrastorik	harremanik
6	keinu	agur	kexa	zalantza
7	adierazpideak	ulertzeak	ezagutzak	ezaugarriak
8	baimenduko	aldatuko	errespetatuko	okerragotuko
9	ataka	amorrua	arrangura	estutasuna
10	aurkakotasunak	arrazoiak	arazoak	dilemak



C1 maila | Idazmen-proba



Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta ondoren, eskatzen zaizuna kontuan hartuz, idazmen-proba egin.

Oharrak:

- Idazteko, boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi, eta saiatu letra argia egiten.
- Orrialde marradunetan idatzi.
- Gogoratu gutxienerako hitz-kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana egiteko, **90 minutu dituzu.**

Ebaluazio-irizpideak

C1 mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen arabeko lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anforak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Izarrak on-line

Egoera:

Duela egun batzuk Influencer-en fenomenoari buruzko artikulu bat irakurri zenuen webgune batean. Interneti eta sare sozialei esker –Youtube, Instagram...– izar bihurtzen dira, batez ere gazteen artean. Askok erreferentetzat hartzen dituzte, eta haurrek ere youtuber izan nahi dute jada.

Eginkizuna:

Idatzi gaiari buruzko artikulua, herriko gazte-talde batek kudeatzen duen blogean argitaratzeko. Bertan, eman Interneteko izarren fenomenoari buruzko zure ikuspegia. Azaldu gazteak haien jarraitzaile izateko arrazoiak; argudiatu zein diren fenomenoaren abantailak eta arriskuak; eta ohartarazi jarraitzaileengan izan dezakeen eraginaz.

Lagungarriak:

- Izarrak lehen telebistan; orain Interneten eta sare sozialetan.
- Askotariko gaiak: bideo-jokoak, mugikorrak eta tresna elektronikoak, arropa, modako produktuak...
- Gaztetxoengana iristeko zuzeneko kanalak, elkarreragina, gertutasuna...
- Marka handientzat negozio da jarraitzaile ugari dituzten pertsonak kontratatzea euren produktuak erakusteko.
- Edukiak batzuetan gaitzesgarriak, adingabeek helduen kontrolik ez...



2. gaia: Telebistako aurkezleak: profesionaltasuna ala irudia?

Egoera:

Telebistako emakume-aurkezle gehienak gazteak dira. Adin batera helduta, kamera aurrean lan egiteari uzten diote, eta beste aurkezle gazteago batzuek hartzen dute euren tokia. Datuak argiak dira: 35 eta 49 adin-tartean dago albistegietako emakume-aurkezleen % 100; gizonei dagokienez, ordea, 50 eta 64 adin-tartean dago % 97.

Eginkizuna:

Bizi zaren tokian ere jokabidea antzekoa da ikusle-kopuru handiena duen telebista-kate publikoan. Hala, telebista-kateko zuzendariari gutuna idaztea erabaki duzu, jokabide horri buruzko zure iritzia emateko. Gutunean azaldu egoera, arrazoitu gazte-itxura profesionaltasunaren gaintik jartzearen ondorioak, eta proposatu egoera aldatzeko neurriak, horretarako argudioak emanaz.

Lagungarriak:

- Batzuek takoi altuko zapatak, minigonak eta eskoteak; besteek trajea eta kirol-oinetakoak.
- Eskarmentua adinari lotuta: sinesgarritasuna, jarraitzaile fidelak, kalitatezko saioen bermea...
- Profesional hobeak izan litezkeenak itxuragatik baztertu; telebista kalitate eskasa...
- Emakumeekin bakarrik egiten da; jokabide diskriminatzailea da.
- Telebista publikoaren ardura soziala.



Zirriborroetarako
(orrialde hau ez da zuzenduko)

ZIRRIBORROETARAKO